



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

José María Alzuri Vertiz jauna
Miren Ilarregi Belarra andrea
María Larretxea Etxeberria andrea

2020eko apirilaren 8an, 11:00etan, Ez-ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, bitarteko telematikoen bidez, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. BILKURAREN PREMIA.

Udalburuak azaltzen du, nahiz eta beharrezkoa ez izan, COVID-19ak ekarritako egoera berezia eta Bilkura ospatzeko ibililtzen ari diren bitarteko telematioak direla eta, komenigarria litzatekeela gaur biltzen diren zinegotziek, Bilkura ospatzeko premia dagoela aitortzea. Izan ere Iñakik eskaturiko herrilurren erabilera aldaketa burutu ahal izateko eta aldaketa horrek ekartzen dion aprobetxamendua probesteko sasoia da. Finean, eskatzaileak nahi duena belarrak aprobetxatzea delako, eta belarrak probesteko lurra lantzeko garaia da. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4
Abstentzio 3

1.- Bilkuraren premia aitortzea.

2. HERRI LURREN ERABILERA ALDAKETA: IÑAKI VERA MUTUBERRÍA.

Udalburuak azaldu du, Iñaki Vera Mutuberriak 1. Poligonoko 83 eta 88 lurzatiek erabilera aldaketa eskatu zuela. Hain zuzen ere “pastizal” bezala dauden lurzati horiek “prado” erabilerara aldatzea. Ikusita Ingurugiro eta Landa Garapeneko Departamentuakaren Baso Kudeaketaren Sailak 43E/2020. Ebazpenaren bidez aldaketarako baiezkua eman duela, Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 4
Abstentzio 3

1.- Herrilurren erabilera aldaketa onartzea.

2.- Akordioa interesdunari helaraztea.

Eta bertzerik ezean, 11:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.